

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Luisa Arabiourrutia Gorroño

*Bergara,
Gipuzkoa
(1927-2018)*

Aurkibidea



Biografia



1927an jaio zen Berrizen, Zapateruena baserrian. Ama Murgoitio auzoko Gorroñonekoa zuen eta aita Gaztelukoa. Aitaren aldeko amama Betzuen baserrikoa zen. Errepublika garaian, 1931. urtean, Bergarara joan ziren bizitzera. Gerra sasoiari ihesean ibili ziren. Lehenengo Berrizen egon ziren, Gorroñonean; Durangoko bonbardaketa ostean, Oromiñora, Trazola baserrira. Berriz 1936 gogoratzen elkartekoek egin zioten elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko.

Zintak

BER-314

- **Proiektua:** Berriz 1936 gogoratzen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Maite
- **Data:** 2007-11-15
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Arrizabalaga, Maite

BER-315

- **Proiektua:** Berriz 1936 gogoratzen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arrizabalaga, Maite
- **Data:** 2007-11-15
- **Iraupena:** 42 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Emalea:** Arrizabalaga, Maite

Pasarteak

1. Berriztik Bergarara, trenbideko etxera

- **Erref:** BER-314/004
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:02:52. **Bukatu:** 00:05:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Trenbideko langileak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Ume-umea zela, 1931n joan ziren Bergarara bizitzera. Gogoan du negar handiak egin zituela. Ama ere ez zen gustura joan. Aita trenbideko langilea zen eta etxea ere halakoxea zen, tunelaren ondoan. Donostiara joateko aukera izan zuten, baina Bergaran gelditu ziren. </p>

2. Gerraren hasiera; miliziano jantzitako emakume taldea

- **Erref:** BER-314/007
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:05:53. **Bukatu:** 00:07:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera

Laburpena:

<p>Gerraren hasiera oso ondo gogoratzen du. Santa Marina jaiak ospatzen ziren. Emakume talde bat ikusi zuten miliziano jantzita "Viva Rusia" oihukatzen.</p>

3. Gauza guztiak lagata, etxetik alde egin behar

- **Erref:** BER-314/009
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:09:11. **Bukatu:** 00:11:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Irailean iritsi ziren tropak Bergarara. Euren aitak eskutitz bat jaso zuen etxetik alde egiteko esaten eta furgonetan Berrizera joan ziren, ahal zutena hartuta. Gainontzeko gauza guztiak hantxe utzi behar. Garai batean botoa ugazabena izaten zela dio, haiek agindutakoa bete behar.

4. Leku guztietatik etorritako jendea batu zen etxean

- **Erref:** BER-314/011
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:11:37. **Bukatu:** 00:13:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Bergaratik Berrizera alde egin zuten gerra sasoian. Gogoan du egunetik egunera etxea jendez betetzen joan zela. Elorrioko familia bat ganadu mordoarekin joan zen, adibidez. Gipuzkoarrak ere bazeuden. Irailetik aurrera izan zen hori, tropek Gipuzkoa hartu zutenean. Aitak mutil indartsuak baliatu zituen lursail urtsuetan zangak egin eta soro bihurtzeko.

5. Gerratean partaide, baina armarik hartu gabe

- **Erref:** BER-314/013
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:13:44. **Bukatu:** 00:15:37

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra garaiko kontuak. Euren etxean egon ziren mutilek gerratean nola parte hartu zuten: bata kotxearekin boluntario Kirikiño batailoian, bestea Elgetan "azemilero"... "Azemilero"ek asto edo mandoarekin jatekoa eramaten zuten frontera.

6. 1936ko Gabonak; etxea jendez beteta

- **Erref:** BER-314/016
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:19:53. **Bukatu:** 00:21:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra sasoian umeez ez zuten eskolarik. Jende asko etortzen zen etxera eta zegoena ematen zitzaien. 1936ko Gabonetan osaba-izebek jatekoa ekarri zuten nonbaitetik, baina hainbeste jende batu zen...! Bere amak hotza zutenei jakaren eskumuturrean artilezko zatiak josi zizkien.

7. Durangoko bonbardaketa; bi ahizpa gazte hilda

- **Erref:** BER-314/018
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:22:36. **Bukatu:** 00:26:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Durangoko bonbardaketa. Bonbak jausten ikusi zituzten. Amama eta osaba falta zirenez, aititak 14 urteko mutikoa bizikletarekin bidali zuen, baina ez zioten utzi Matienatik aurrera pasatzen. Ezagun batek esan zien bere neska-laguna hilda ikusi zuela. Bi ahizpa hil ziren. Ezkongabeak zirenez, hil-kutxa zurietan eraman zituzten. Bere aita hondakin artetik jendea ateratzera eraman zuten. Arratsaldeko bonbardaketa are bortitzagoa izan zen.

8. Durango bonbardatu ostean, Berriztik Oromiñora

- **Erref:** BER-314/021
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:28:10. **Bukatu:** 00:29:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

1937ko martxoan, Durangoko bonbardaketa pasa eta berehala, Oromiñoko Trazola baserrira joan ziren ihesean. Aitita gurdiaekin eta ganaduekin joana zen. Lau umeak beste emakume batekin, karroa trastez beteta. Gogoan du Durango oinez zeharkatu zutela erdi-erditik. Oraindik sutan zegoen herria.</p>

9. Familia sakabanatuta; milizianoak baserrian

- **Erref:** BER-314/024
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:34:05. **Bukatu:** 00:36:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Durangoko bonbardaketa ostean, Berriztik Oromiñoko Trazola baserrira joan ziren. Aitita goizean joan zen ganaduekin eta umeak atzetik beste emakume batekin. Ama eta amama etxean geratu ziren, arratsaldean norbait bila joango zitzaielakoan. Baina milizianoak ihesean hasi zirelako bideak itxi zituzten eta ezin izan ziren Ereñatik pasa, haien bila joateko. Amari eta amamari milizianoak joan zitzaizkien baserrira.</p>

10. Oromiñon bi fronteren erdian; milizianoak

- **Erref:** BER-314/030
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:44:00. **Bukatu:** 00:46:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Oromiñon bi fronteren erdian egon ziren. Behin nazionalen aldera ihesean zaurituta zihoan gizon batekin batera miliziano batzuk joan zitzaizkien Trazolara, tartean bat "galoiduna". Jarrera oso egokia izan omen zuen. Orduan bizitakoak.</p>

11. Aitita bost umerekin Oromiñotik Berrizera bueltan

- **Erref:** BER-314/033
- **Iraupena:** 0:04:23. **Hasi:** 00:50:15. **Bukatu:** 00:54:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Oromiñon zeudela, ganadu mordoarekin eta gurdia bete-bete eginda zihoan gizon bat nola tirokatu zuten ikusi zuten. Gizonari ez zitzaion ezer gertatu, baina ganaduak hil zituzten. Han ez zeudela ondo pentsatuta, bost umeak hartu eta Gorroñorantz abiatu zen aitita, behia sokatik

hartuta. Horrez gain, ahate handi bat ere eraman zuten. lurreta parean zubia apurtuta zegoen eta gizon batek lagundu zien, nondik joan behar zuten esanda.</p>

12. Soldaduen beldurrez, soroan gauez lanean

- **Erref:** BER-314/035
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:57:24. **Bukatu:** 00:59:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Baserría » Baserriko lanak » Baratztea eta soroa

Laburpena:

<p>Oromiñotik Gorroñonera bueltatu eta gero artoak erein zituzten. Oromiñotik eraman zuten behi makala Bergaratik ekarritako beste behi makal batekin uztartu zuten. Aitak zaldia erosi zuen Gasteizen. Soldaduen beldurrez, gauez lan egiten zuten soroan. Bera gau osoa ibilita ei dago itaurrean, ilargiaren argitan. Sekula baino arto eta piper hobeak jaso omen zituzten.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com